



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BILBOKO HIRITRENAREN 2. LINEAKO OBREN KONTRATAZIOAN LEGEA BETE ETA 1. LINEAREN LIKIDAZIOA ETA HORREN GUZTIZKO KOSTUA GAURKOTZEARI BURUZKOA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Bilboko Hiri Trenbidearen (BHT) 2. Linea eraikitzeko hornigai, obra eta zerbitzuen kontratazioan eta 1. Linearen kontratu-likidazioan erabili diren legezko prozedurak ikuskatu ditu, 1998-2000 aldian gauzatu direnak eta lehenago fiskalizaziogai izan zirenak.

Erakunde Fiskalizatzailearen txostenak ondorentzen du BHT eraikitzeko ardura izan duen Garraio Partzuergoak kontratazioa indarreko legediari jarraiki gauzatu duela.

Aztertutako espediente batzuetan hainbat huts azaldu dira, erabilitako prozeduretan eragina dutenak, baina garrantzi txikikoak direnak.

1995az geroztik abian dagoen 1. Linearen kostua 623 milioi €koa dela 00.12.31n zenbatetsi du HKEEk eta kopuru txiki bat dago ejekutatzeko, batik bat, prezioa zehazteko duten desjabetzek osatzen dutenak. Kopuru honi Eusko Jaurlaritzak eta Metro Bilbao, SAK zuzenean eta hurrenez hurren exekutututako 49 milioi € eta 37 milioi € gehitu behar zaizkio.

2. Lineak 722 milioi €ko exekuzio-aurreikuspena du eta 2000ko abenduan horietatik 173 zeuden eginak. Orobat, Eusko Jaurlaritzak zuzenean exekutututako 10 milioi € gaineratu behar dizkiogu honi.

BHTren kostua hein berean finantzatu dute Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, oniritzi zen finantza planari jarraiki. Gainerako kostua nagusiki zorpidetzaren bitartez eta BHTren jarduera beraren bidez finantzatu da.